

ZAS!

BULETINA

www.zas.eus

martxoak 2026 marzo

Martxoak 21: Arrazakeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna //
21 de marzo: Día Internacional de la Eliminación de la Discriminación Racial



CARNE Y ARENA.

Alejandro G. Iñárritu mexikar zinemagilearen murgiltze-instalazioak nazioarteko bira berriari ekingo dio bilbon martxoan.

«**Carne y arena**»k errealitate birtualeko murgiltze esperientzia bat eskaintzen du, bisitari bakoitza mexikar eta erdialdeko amerikar migratzaile eta errefuxiatuek egindako bidaiaren zati baten erdian kokatzen duena. Bisitariak ez du migrazioa ikusten: zeharkatu egiten du.

Carne y arena (Birtualki Presente, Fisikoki Ikusezin) errealitate birtualeko instalazio hori EITBren Bilboko egoitzako 5. platoa espazio berrian egongo da 2026ko martxoaren 11tik ekainaren 20ra arte. Instalazio hori Alejandro G. Iñárritu mexikar zinemagileak sortua da.

Proiektuak, gainera, Alejandro G. Iñárrituren parte-hartze aktiboa izango du, eta herritarrei, unibertsitate-eremuari eta industria zinematografikoari zuzendutako hitzaldi, elkarrizketa publiko eta topaketetan parte hartuko du, migrazioari eta bizikidetzari, eta arteari eta teknologiar buruzko gaiak jorratzeko. Erakustaldiko hiru hilabeteetan, eztabaidak eta hausnarketarako espazioak programatuko dira, data esanguratsuekin batera, hala nola Arraza-diskriminazio mota guztiak desagerrarazteko Nazioarteko Egunean (martxoaren 21a), Kultura Aniztasunaren Munduko Egunean (maiatzaren 21a) eta Errefuxiatuen Munduko Egunean (ekainaren 20a).

Lankidetzen artean, honako hauek nabarmendu behar dira:

- **Metro Bilbao;** erakusketa osagarri bat egingo du martxoan eta apirilean Moyuako eta Santimamiko geltokietan.
- **ZAS! Zurrumurruen Aurkako Sarea (Zurrumurruen aurkako euskal sarea);** arrazismoaren eta xenofobiaren kontrako sensibilizazio- eta prebentzio-jarduerak bultzatuko ditu.
- **Bilbao Bizkaia Film Comission;** ikus-entzunezkoen industriarekiko topaketa profesionalak eta jarduerak koordinatuko ditu, sortzaileekiko solasaldiak eta unibertsitateko eskola magistral bat bat barne.

Errealitate birtualeko sei minutu eta erdiz —guztira, hamabost minutu inguruko esperientzia batean—, ikuslearen eta historiako protagonistaren arteko mugak deseginez joaten dira. Bisitariak ez du migrazioa ikusten: zeharkatu egiten du. Oinez doa harearen gainean, bertatik bertara entzuten, sentitzen eta esperimentatzen du erbesterako bideari lotzen zaizkion pertsonen hauskortasuna eta duintasuna. Iñárrituk berak nabarmendu du zein egokia den instalazioa Bilbon jartzea, kontuan izanik “testuinguru globala, zeinean gorrotoaren diskurtsoa eta bestearekiko begiradaren erradikalizazioa areagotzen baitira”, eta, hain zuzen ere, “teknologia eta artea dira, ikuspegi humanista batetik eta esplorazio antropologiko batetik, ulermena sor dezaketenak, hura, azken batean, enpatia esateko beste modu bat baizik ez baita. Politikarik eta ideologiarik gabe, Carne y Arenak are garrantzi handiagoa hartzen du.”



IKUSI ALBISTEA

Preguntas — **ZAS!** *Asaari Bibang* *Actriz, escritora, humorista*

En 2021 la revista Forbes la nombró una de las 100 influencers más importantes del momento en áreas como el activismo y la divulgación, en 2023 recibió el premio Mujeres a Seguir en la categoría de cultura y el Premio ODA 2023 a la Mejor Creación en Nuevos Medios. Estamos hablando de la actriz, escritora, humorista y ecuatoguineana Asaari Bibang, quien visitó Getxo el pasado 6 de marzo con su espectáculo "Humor Negra", y tuvimos la oportunidad de charlar con ella sobre sus inspiraciones y sueños, el poder del humor, y las referentes con las que comparte activismo.

Desde bien pequeña descubrió que su pasión era el espectáculo y fue en 2016 cuando se inició en el mundo del stand up comedy, y en estos 10 años ha creado 4 shows ("Negra batalla", "Amén, hermana", "Humor negra" y "Bibang Theory") con los que ha arrancado carcajadas a muchos públicos a la vez que hace reflexionar sobre las repercusiones del racismo. Además, como buena artista polifacética, ha estado presente en programas referentes de la televisión, ha creado el podcast "No hay negros en el Tibet" acompañada por Frank T y Lamine Thior lo cual le ha permitido continuar realizando colaboraciones con medios como El País y la Cadena SER, y su formación teatral la llevó a participar en su primera película junto a Emma Suárez: Área de descanso, y el pasado año 2025, en la película "Ruido". Cómo no, sus redes sociales están cargadas de humor, reflexiones antirracistas y pensamiento crítico, por lo que os recomendamos seguirle.

Humor para la transformación social, ¿cuáles crees que son las claves para que funcione?

Bueno, las claves para que funcione el humor para la transformación social es que tu prioridad sea que la gente se ría. A partir de allí, pues ya conocer muy bien la materia que quieres tratar, el tema que quieres abordar y además conocer muy bien esa materia como desde diferentes prismas y desde diferentes planos. Creo que cuando un chiste tiene conocimiento, tiene verdad y tiene corazón, que al final lo que es el humor, el explorar el interior, funciona, funciona siempre.

Como humorista, ¿cuál es tu gran sueño? ¿Y como humorista antirracista?

Pues mi sueño como humorista y mi sueño como humorista antirracista en realidad es el mismo, que me consideren humorista y ya está, con una mirada distinta que es la mía, de una realidad distinta que es la mía, como cualquier otro humorista que no se le ponen adjetivos después de humorista. Ese sería mi sueño.

Bibang Theory vs. Humor negra, sin hacer spoilers, ¿qué inspiración has tenido para esta nueva obra?

Creo que cuando cumples cierta edad te pasa un poco como cuando te quedas embarazada, que se te van los filtros, no estás como para muchas tonterías ya. Y yo creo que de ahí es donde ha venido mi

inspiración para esta nueva obra, lo cual es muy divertido porque es muy natural y muy burra y muy divertida.

¿Qué referentes y activistas antirracistas recomendarías?

Tengo la suerte de tener muy cerca a verdaderos cerebros en la materia.

Quiero mucho a Lucía Mbomio, con Desirée Bela me río muchísimo, soy su pequeña saltamontes, Ileana Wilson es mi casa, mi chamana.

Amo a Yania Concepción que te arroja con su amor infinito, Quan Zhou, Safia El Aaddam, Ana Bueriberi y Ana Bibang.

Sara Buri, Ebaba Hameida, Mina El Hammani, Hiba Abouk, Almu Lasacre, Victoria Santos, Asha Ismael...



2 ARGITU DITZAGUN ZALANTZAK

ZAS! sareak hausnarketarako guneak sortzen jarraitzen du Gipuzkoan, oraingoan udal teknikarien sarearekin (Elkarbizi), erakundeekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin.

2025eko abendutik 2026ko otsailera bitartean, ZAS! sareak, Asier Gallastegirekin lankidetzan, bi lan- eta hausnarketa-saio egin ditu udaletako eta aldundiko teknikariekin, bai eta zurrumurruen prebentzioan eta bizikidetzaren sustapenean inplikaturako Gipuzkoako erakundeekin ere.




Saio horien helburua topagune bat eta pentsamendu estrategiko bat finkatzea izan da, ikasitakoa berrikusteko, gaur egungo erronkak identifikatzeko, eta koherenteagoa eta sare gisa egituratuagoa den ekintza baterantz aurrera egiteko, Gipuzkoako udalerrien ingurune desberdinetan dauden zurrumurru eta diskurtso eta jarrera xenofobo, diskriminatzaile eta arrazistei aurre egiteko asmoz.

Prozesuak memoria eta proiektzioa konbinatu ditu. Lehenengo saioan, zurrumurruen aurkako elkarrizketen inguruan pilaturako ziurtasunetan eta galdera irekietan sakondu genuen, eta azpimarraitu genuen oso garrantzitsua dela lotura sortzea, entzutea eta diskurtso askoren azpian dagoen dimentsio emozionala aintzat hartzea. Gaur egungo testuinguruan dauden tentsioak landu genituen —polarizazioa, burbuila digitalak, desinformazioa—, eta balizko ekintza batzuk proposatu.

Bigarren saioa gauzak zehazteko urrats bat izan zen. Identifikaturako erronketatik abiatuta —komunitatea indartzea, entzutearen dimentsioa, proposamen-argudioak eraikitzea eta presentzia digitala—, proposamen eraginkorrak sortu genituen: esperientzia komunitario iraunkorrek aktibatzea, zubi-lana egiten duten pertsonak indartu eta zaintzea, herritarren arreta erakarriko duten mezu labur eta koherenteak diseinatzea, gazteak espazio digitalean inplikatzea eta Gipuzkoarako estrategia partekatu baterantz aurrera egitea.

Espazioa, berriro ere, distantzia hartzeko, inertziak aztertzeke eta esperimendatzeko ausartzeko lekua izan da. Behin betiko erantzunak itxi beharrean, saioek indartu egin dute metodoaren eta mezuaren arteko koherentziatik lan egiteko beharra, bi eremuak —tokikoa eta probintziakoa— egituratzeko beharra, eta ekintzen zerbitzura egongo den sare bati eusteko beharra, eta ez alderantziz.

Orain, argiago dugu zer erronka sistemikori aurre egiten diegun. Konpromisoa hartu dugu aliantzak ehuntzen jarraitzeko, eta asmoa dugu ekimen berriak probatzeko, bai eta auzoak, herriak eta hiriak inklusiboagoak eta demokratikoagoak izatea ekarriko duten prozesu komunitarioak indartzeko ere.



IKUSI ALBISTEA

